

Hiru belaunaldi eta gehiago

Euskal zinemaren inguruko gogoeta anitzekin osatutako liburua plazaratu du Filmategiak

Gorka Erostarbe Donostia

Abiapuntua jartzea. Ondoren eztabaidarako bide berriak zabal daitezten. Asmo hori izan du Joxean Fernandez Euskadiko Filmategiko zuzendariak *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* liburuaren proiektua abian jarri zuenetik. EHUko Uda Ikastaroen barruan, 2014ko uztailaren kongresu bat antolatu zuen Filmategiak euskal zinemaren inguruan. Bilkura hartan izandako hitzaldi eta mahai inguruaren transkripzioarekin osaturik dago liburua. «Gaur egun aldi berean lanean diharduten zinemagileen presentzia eta haien arteko elkarrizketak zein eztabaidak dira liburuaren ardatz nagusia. Transizio garaitik hona inoiz ez da horrenbeste zinemagile, ikertzaile, aditu eta zale elkartu euskal zinemaren inguruan hausnartzeko, eta gogoeta horien emaitza da liburua», azaldu zuen Fernandezek atzo egindako aurkezpenean.

Zinemagileak hiru belaunalditan banatu, eta hiru mahai inguru antolatu zituzten mintegi hartan. Lehenengoan honako hauek parte hartu zuten: Montxo Armendariz, Ana Diezek, Pedro Oleak eta Imanol Uribek. Bigarrenengoan, berriz, beste hauek parte hartu zuten: Juanma Bajo Ulloak, Daniel Kalparsorok, Helena Tabernak eta Enrique Urbizuk. Hirugarren belaunaldikoan, Kimuak programaren garrantziaz aritu ziren, batez ere, Koldo Almandoz, Asier Altuna, Borja Kobeaga, Jose Mari Goenaga, Isabel Herguera eta Pablo Malo. Gainera, beste bi mahai inguru tematiko ere osatu zituzten. Euskal industria zinematografikoaz aritu ziren Xabier Berzosa, Carlos Juarez, Aintzane Perez del Palomar, Joxe Portela eta Koldo Zuazua, Patxi Azpillaga moderatzaile zutela. Kritika zinematografikoa landu zuten, aldi, Gontzal Agotek, Juan Zaperterrek eta Ricardo Aldarondok, Begoña del Tesok gidaturik. «Ahalik eta jende gehiena egon zedin saiatu ginen. Parte hartu zuten guztiak dira, baina diren guztiak ez zuten egotetik izan», egin zuen zahar-tapena Fernandezek.

Orotara, bost mahai inguru horiek eta beste 19 hitzaldi biltzen ditu liburua mardulak. Eta orotari-



Liburuaren egile eta arduradunetako batzuk, Filmategiko eta erakundeetako ordezkariekin. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

ko gaiak dituzte mintzagai hitzaldi transkribatu horiek; hastapenak, belaunaldi desberdinak, euskararen erabilera, generoen ingurukoak, animazio zinema, euskal zinema undergrounda, Zinemaldiaren eta Kimuak proiektuaren garrantzia... Gehientsuenak gaztelaniaz eskaini zituzten, eta hala daude azalduak liburuan ere, baina bospasei euskaraz egindakoak dira. Horien gaztelaniazko itzulpenak ere jasotzen ditu lanak. Euskarazkoen artean

me zinemagileen begiraden arrastoen bila eta Josu Martinen *Zor genion lekua: apunteak, ezusteak eta paradoxak Gure Sor Lekua-ren filmaren aurkikuntzari buruz* izenekoak ere.

Euskaraz eta Euskal Herrian

Asier Altuna izan zen mahai inguru haietako batean, eta Euskal Herrian egindako zinemagintzan hasieratik aldaketa handiak gertatu direla nabarmendu zuen, eta bereziki aipatu zuen euskararen agerpena. «Egun, zorionez, euskaraz zinema egiten ari gara, eta modu naturalean. Niretzat, hori polita eta inportantea da, euskaraz bizi garelako, eta, gainera, ohartzeko naiz garai batean Madrilerako oso erraz egiten zutela zinemaren aritu nahi zutenek. Gaur egun badugu modua Euskal Herrian zinema egiteko, eta hori ere polita da. Espero dut hemendik aurrera ere horrela jarraitzea».

Atzo egindako aurkezpenean ez zen emakumerik izan hizlariaren artean, eta, hori aitortuta, Joxean Fernandezek gogoan izan zituen proiektuan parte hartu duten emakumeak, eta baita

zinemagintzan aritu direnak ere. «Kongresua antolatu genuenean gure kezka nagusietako bat izan zen emakumezkoak izan zitezela, eta bi hitzalditan bederen haiek izan ziren protagonistak. Iratxe Fresnedak eta Casilda de Miguelak emakumeek euskal zineman izan duten presentzia eta emakumetasuna nola jorratu den izan zuten mintzagai hitzaldietan».

Beste hainbat erakunderen laguntzaz gain, Eusko Jaurlaritzarena jaso du Filmategiak proiektua aurrera eramanean ahal izateko. Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak gogoratu nahi izan zuen berez «hiru belaunaldi baino gehiago» direla euskal zinemagintzan aritutakoak, baina «ulertzen» duela liburu historiografiko batek sailkapen eta muga batzuk egin behar dituela. Horrez gain, azpimarratu zuen halako proiektuek azaltzen dutela zein den Filmategiaren balioa: «Zinemaren balioa ez da ekonomikoa, baizik eta istorioak behin eta berriz kontatzea, ingurune baten errealitatea ikuspegi kritikoaz lantzeko. Hori gertatzen ari da dagoreneko, eta, pantailaz harago, Filmategiak balio behar du gogoeta horiek egiteko, kritikarako gune bihurtzeko».



+
BASQUEWOOD
Urtzi Urkizu

Sagar ustel, mikatz eta gozoak

Kataluniako hauteskunde kanpainen murgilduta ibili dira Karmele Marchante eta Belen Esteban. Espero ez genuena Zinemaldiko Zinemira sailleko film batean topatzea zen. Sam Orti Martiren *Pos eso* filmean agertzen dira, panpina gisa. Alex de la Iglesia sinatuko lukeen deabrukeria ero eta txaxtua, *Pos eso*. Esteban eta Marchante, ai ama! Hego Euskal Herrian jende gehiagok ezagutzen ditu bi horiek Klara Badiola eta Iraia Elias baino. Kultur eta gizarte drama bat.

Halako dramak arintzea ez da erraza izaten, baina sagardo pixka bat edateak arindu dezake. Arinkerietan sartu bagara ere, arimetik baino gehiago du sakoetik Bego Zubiaren *Sagardoa bidegile* dokumental (Culinary Zinema). Sagardoaren iraganaz azalpen ugari gasoko ditu dokumentalaren ikusleak. Sagardoaren eta baserriaren arteko lotura, esate baterako. Edo itsasgizonen eta sagardoaren artekoa. Iragana, oraina eta etorkizuna ere bai. Sagardotegien bilakaera. Ameriketako Estatu Batuetan euskal sagardoa nola zabaltzen ari den. Sagarren arteko nahasketak laborategian. Arreta deitzen du Pixel ekoizpen etxeak eta Juantxo Sardonek irudi aldetik egin duten lanak. Antzeko gaiak lantzen dituzten dokumental gehienetan baino landuagoak daude irudiak. Produktua nabarmen hobetuz. Urtariletik aurrera herriz herri proiektatuko dute *Sagardoa bidegile*. Horrekin batera, polita litzateke txingarren hotsa entzutea, Donostiako Zazpi t' erdi ekoizpen etxearen *Brasa* laborra eskainiz. Atsegina da oso Ander Fernandezek txingarrei egindako musika. Tele5ko pertsonaien garrasiak entzutea baino osasungarriagoa, edonorentzat.



Trantsizio garaitik ez da horrenbeste egile, ikertzaile, aditu eta zale elkartu euskal zinemaz hausnartzeko»

Joxean Fernandez
Euskadiko Filmategiko zuzendaria

«Egun, zorionez, euskaraz zinema egiten ari gara, eta modu naturalean. Niretzat, hori polita eta inportantea da»

Asier Altuna
Zinemagilea

dago, adibidez, Zigor Etxebestek emandako hitzaldia: *Euskararen erabilera eta euskal presentzia euskal zineman*. Eta halatsu daude Iratxe Fresnedaren *Irrintziaren oihartzunak*. *Euskal emaku-*